



EAEKO LURRALDEETAN ADOSTU DIREN ERREFORMA FISKALAK

2012ko urtarrilaren 30a

EAEKO LURRALDEETAN ADOSTU DIREN ERREFORMA FISKALAK

2012ko urtarrilaren 30a

O- SARRERA

ELAk irailean Foru-Aldundien gobernu-ekintzarako proposamenak biltzen zituen agiri bat kaleratu zuen. Agiriaren ataletako bat fiskalitateari buruzkoa zen. Bertan EAEn aplikatu izan den zerga-politika aztertu eta hainbat proposamen egin genuen. Noski, agiri hartako oinarriak berretsi egiten ditugu.

Abendu erdialdera zerga arloan iritsitako akordioak eman ziren ezagutzera, eta hauek 2012an indarrean sartu dira. Dokumentu honetan EAeko hiru lurraldeetan izan diren itunak aztertuko ditugu. Hauek ELAren proposamenetatik oso urrun daude. Erreforma fiskalek ez dute funtsezko aldaketarik ekarri orain arte zerga-politikan egin izan denarekiko.

I- LURRALDE BAKOITZEAN ADOSTUTAKO ERREFORMA FISKALAK

Gipuzkoako erreforma fiskala abenduaren 16an definitu zen, Bildu, PSE eta Aralarren babesa jaso eta gero. Azken hiletan Aldundiak nabarmendu izan duenez, erreforma fiskal hau "lehen urrats bat da, eta aldaketa gehiago izango da".

Bada, "lehen urrats" honek hasierako asmoa moteldu baino ez du egin, ELAk urritzat jo zituelarik.

Arabako eta Bizkaiko araudi fiskala PPren eta EAJren artean adostu zuten. Araban onartuta dago eta Bizkaian dagokionez, zergei buruzko erabakiak Batzar Nagusietan eztabaidatzen ari dira, eta laster onartzekotan daude. 2011 amaierako erabaki bakarria zegoen onartuta, Ondarearen gaineko Zerga ezartzea. Bizkaiko Foru-Aldundiaren proposamena ia arabarraren berbera da.

Lurraldeetako erreforma fiskalak honela laburbil daitezke:

- **PFEZ**

PFEZaren tarifa orokorra

PFEZaren tarifa orokorrak kapitalaren errentak ez direnen gain eragiten du.

Hasieran, Bilduren helburua Gipuzkoako PFEZean zergaren gehitzea zen 120.000 eurotik gorako oinarri likidagarrientzat, tipo marjinala %45etik %47ra aldatuko zelarik. 175.000 euro baino gehiagoko oinarri likidagarrientzat tipo marjinala %50eko litzateke. Neurri honek Gipuzkoako zergadunen %0,6ari bakarrik eragingo lioke.

Akordioan azkenik egin den hautua eskalan hiru tarte sortzea izan da: %46ko tasa 90.000 eurotik gorako oinarri likidagarrientzat, %47a 120.000 eurotik gorakoentzat

eta %49a, 175.000 eurotik gorakoentzat. Hots, azkenean erabaki diren tasa marjinalak hasierako proposamenekoak baino txikiagoak dira.

Arabari dagokionez oinarri likidagarrien gaineko zerga-tasak ez dira ukituko, eta horrenbestez %23tik %45era bitartean jarraituko dute.

Bizkaiko Foru-Arau proiektuak dienez, ez dago oinarri likidagarriaren gaineko eskalan zerga-tasak aldatzeko asmorik, Araban bezalaxe.

Gogora dezagun espainiar estatuan lan-errenten gaineko PFEZeko tasak 2011, 2012 eta 2013an %24,75 eta %52 bitartean ezarrita egongo direla, errenta baxuenetatik handienetara. Kataluña, Andaluzia eta Balentziako Erkidegoen kasuan, tipo marjunal handiena %55 edo %56ra iristen da, EAEko hiru herrialdeetan ezarritakoak baino nabarmen altuagoak.

Aurrezki

Aurrezki oinarria deritzonak capital errenta guztiak batzen ditu eta %20ko tipo finkoan

Gipuzkoako lehen proposamenean 1.500tik gorako sarrerentzat %24 tasa berri bat ezarri nahi zen. Honela 20 milioi euro gehiago biltzeko asmoa zegoen.

Azken akordioan hitzartu zenez, berriz, 4.000 eurotik gorako sarrerean gainean, 3 puntu baino ez dira gehitzen, %23ra.

Arabako akordioaren eta Bizkaiko Foru-Arau proiektuaren arabera aurrezkiaren oinarrian 10.000 eurora bitarteko diru-sarreraren gainean %20ko tasa ezarriko da (gaur egungo moduan), eta hortik gora, %22.

Espainiako gobernuaren erreformarekin lan-errentek lehen 6.000 euroengatik %21ko tasa ordainduko dute, %25, 6.000 eta 24.000 euro bitartean eta %27, 24.000 eurotik gora.

BGAE

Hasieran Gipuzkoan ekarpenak egiteko mugak aldatzeko asmoa zegoen, 5.000 euro oro har (orain arte muga 8.000 euro ziren), eta 1.000 euro gehiago urtean 52 urtetik gora (orain arte 1.250 euro), 12.500 euroko topearekin. 65 urte betez gero ezin zen ekarpenik egin. Honela 35 milioi euro gehiago biltzeko asmoa zegoen.

Adostutako akordioan urteko 5.000 euroko muga kengarri orokorra ezartzen da, eta kopurua 12.000 euroraino irits daiteke adinaren arabera. 67 urtetik gorakoek ez daukate zerga-arinketarako eskubiderik.

Araba eta Bizkaiari dagokienez, muga orokorrak 8.000tik 6.000 eurora murrizten dira, eta 52 urtetik gorakoek gehieneko ekarpena 500 euro gehiago izan daiteke

urtero, 12.500 euroko mugarekin. Arabako Aldundiak zerga arintzeko eskubidea izateko adin mugarik ez du ezarri.

Espainiar estatuan pentsio-funtsetara egin daitekeen gehienezko ekarpena urtean 10.000 euro dira.

Etxebizitza

Gipuzkoan, ohiko etxebizitza eskuratzeko kenketa %15era mugatzen da (%20 familia ugariarentzat eta 35 urtez pekoentzat), 30.000 euroko kreditu fiskalarekin. Hasierako proposamenean jasotako aldaketa hau itunean mantendu egin da.

Arabian eta Bizkaian etxebizitza eskuratzeko kenketaren muga urteko 2.160 eurotik 1.800ra murrizten da; urteko kenketa portzentajea %18an mantentzen da, eta etxebizitzaren kreditu fiskala, 36.000 eurotan. Halaber, orain arte %23ko portzentaje gehitua 35 urtez pekoiei aplikatzen bazitzaien, aurrerantzean muga 30 urtetan ezarriko da.

Espainiar estatuan, orain arte etxebizitzako kenketa soilik 24.000 eurotik beherako errenta zutenei aplikatzen zitzaizkien. Gobernuak errenta guztientzat berreskuratu du, kenketa portzentaia %7,5ra mugatuz.

Adinagatiko kenketa

Adostutakoaren arabera, Gipuzkoan soilik 20.000 eurotik beherako errententzat mantenduko da (326 euro 65 urte bete dituztenentzat eta 596, 75 urtetik gorakoentzat). 20.000 eta 30.000 euro bitarteko sarrerentzat mailaka murriztu egiten dira, eta hortik gorakoentzat ez da kenketarik izango.

Arabian zein Bizkaian adinagatiko kenketak 30.000 eurotik beherako errententzat mantenduko dira bakarrik; 30.000 eta 35.000 euro bitartekoentzat, berriz, mailaka murrizten dira, eta hortik gora ezabatu egingo dira.

Familiarentzako laquntza

Arabian eta Bizkaian, sei eta hamasei urte bitarteko ondorengo bakoitzeko dagokion kenketaz gainera kenketa osagarria egingo da, urteko 50 euro. Horrez gain, Arabian sei urte bete gabeko ondorengo bakoitzeko, dagokion kenketaz gainera kenketa osagarri bat aplikatuko da, urteko 326 euro.

• **ONDAREAREN GAINEKO ZERGA**

Gipuzkoan Ondarearen gaineko Zerga azkenekoz indarrean zegoenaren oso antzera berrezarri nahi dute, baina ohiko etxebizitzaren balio salbuetsia 300.000 euroraino gehitzen da, eta gutxieneko pertsonal salbuetsia, 700.000 euroraino.

Gipuzkoako Aldundiaren arabera, zerga "zaharra" berriz ezartzea erabaki da, bi urterako bada ere, hots, 2011 eta 2012rako, izan ere, diotenez 2013an ahalegina egingo baitute jabegoaren gaineko inposizioa eguneratuko duen zerga berri bat izan dadin.

Arabian eta Bizkaian ere ia aurrez indarrean zegoenetan ezarri nahi dute, baina ohiko etxebizitzaren balio salbuetsia 400.000 euroraino gehituta, eta gutxieneko pertsonal salbuetsia, 800.000 euroraino.

Batzar Nagusietan onartu denez, “zerga hau berreskuratzeak helburu bakarra du, ahalmen ekonomiko handia dutenek gastu publikoa sustengatzeko ekarpen nabarmenagoa egitea, horrela Zerga honen aplikazio eremutik zergadun kopuru handi bat uzten delarik”.

Espainiar estatuan autonomia bakoitza zerga hau aplikatzeko edo ez aplikatzeko libre da. Madrilek, kasu, erabateko salbuespenari eutsiko dio. Ondarearen gaineko zerga ezartzea erabakitzen dutenek Gipuzkoan bezalaxe gutxieneko salbuetsia 700.000 euro izango dira, eta ohiko etxebizitzaren balio salbuetsia, 300.000 eurokoa.

- **SOZIETATEEN GAINKO ZERGA**

Gipuzkoako Aldundiak soilik kontzeptu batzuk argitu edo aldatzen ditu Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauan, eta epealdia mugatzen du hiru kontutan: amortizazio askatasuna eta amortizazio azkartua aplikatzeko, eta ohiz kanpoko etekinak berrinbertitzeagatik egiten den kenketaren kasuan.

Nabarmentzekoa da EAJren proposamen bat aurrera atera zela, PSEren babesarekin, Sozietateen gaineko Zergan enpresei egiten zaizkien kenketak gehitze aldera.

Bilduk behin eta berriz azpimarratu du hau ez zela Sozietateen gaineko Zergaren araua aldatzeko une egokia, hau konplexua delako eta denbora gutxi zutelako. Antza, aurten erreforma sakonago bat egiteko asmoa dute.

Araba eta Bizkaian, likidatu edo autolikidatu diren aurreko ekitaldietako oinarri ezargarri negatiboak zerga-epealdiko errenta positiboarekin berdindu ahal izango dira, %70eko mugarekin (aukera hau berria da). Gainera, ekitaldian aplika daitezkeen Sozietateen gaineko Zergako kenketek batuta ezin izango dute kuota likidoaren %35 gainditu; orain arte muga %45ekoa zen.

Arabari dagokionez, kenketak aplikatuko dira enplegua sortzeagatik. Kontratu mugagabea egiten zaion pertsona bakoitzeko kuota likidotik 4.900 euro kenduko dira. Zenbateko hau 4.300 eurotan gehituko da kontratatutako langilea laneratzeko zailtasun berezia duten kolektiboren batekoa bada.

- **ONDORENGOTZAREN GAINKO ZERGA**

Gipuzkoan ezabatu egiten da eskualdatzeetan dagoen salbuespena (oinordetzak eta dohaintzak) zuzeneko senide eta ezkontideen artean, kasu hauetarako 220.000 euroko murrizpen orokor bat barne. Orain arte indarrean zegoen araudiaren arabera salbuespenerako eskubidea zuten zuzeneko senideek orain %1,5eko tasa bakarra ordainduko dute.

Arabian eta Bizkaian dohaintzak senide jakin batzuren artean salbuetsita bazeuden, %1,5eko tasa ordainduko dute. Bizkaiari dagokionez, zerga honen erreforma 2012ko apirilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

Espainiar estatuan autonomia bakoitzak zerga hau era desberdinean arautu du.

- **IRUZUR FISKALAREN JAZARPENA**

Orain arte gai honekiko egin diren proposamenen xedea zirrikitu legalak baliatuz zergak ordaintzeari itzuri egiteko dauden aukerak mugatzea da. Orain diote iruzurrari jazartzeko urrats berriak egingo direla eta 2012an proposamen konkretuak plazaratuko dituztela. Benetako egoera da egun ez dagoela iruzurraren jazarpeneko proposamen konkreturik. Gai honi heltzea zaila ari da gertatzen, kutxa publikoetan oso eragin positiboa izango lukeen arren.

II- NEURRIEN KUANTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Batzar Nagusietan onartu den erreformak gai hauetan guztietan ez du aldaketa handirik ekarriko. Gipuzkoako erabakia medio 50 bat milioi euro gehiago bilduko da (urriaren 21ean Aldundiko arduradunek Batzarretan esan zuten beren proposamenak 75 milioi ekarriko zituela; honi Bildu-PSE akordioaren eraginez 23 milioi kendu behar zaizkio, GARA jasotako euren zenbatespenaren arabera).

Gainera, Aldundiak dioenez “onartu diren zerga-aldaketekin Gipuzkoa gizarte-politikari dagokionez Europako herririk aurreratuengana hurbilduko da, hots, fiskalitate sendo eta progresiboan oinarritutako sistema publiko indartsua duten horiengana”. Honekiko gogoratu behar da 2009an Gipuzkoako presio fiskala %30,37an zegoela, Europako batez besteko %38,4tik oso urrun. Gipuzkoa, HEHko gainontzeko herrialdeen bezala, euroguneko presio fiskalaren azken postuetan dago, Grezia, Lituania, HEH, Bulgaria, Eslovakia, Irlanda, Errumania eta Letoniarekin batera. Gipuzkoa ezin da inondik ere alderatu fiskalitate indartsu eta progresiboa duten herri horiekin.

Bizkaiko Foru-Arau proiektuak biltzen dituen aldibaterako (2011, 2012 eta 2013 urteetan zehar) neurriek 53 milioi euro handituko du dirubilketa PFEZean eta Sozietateen gaineko Zergan eta urtean 40 milioi gehiago urtean ondarearen gaineko zergaren bitartez. Azken honek 3.000 zergadun bizkaitarri eragingo dio.

Araban, 8 milioi euro gehiago biltzea espero da Ondarearen gaineko zergaren bidez baina ez dakigu zein izango den gainontzeko neurrien eragin ekonomikoa, diotenez, ez dakitelako zein izango den populazioarekiko izango duen eragina eta ez delako erraza gaurko egoera ekonomiko aldakorrarekin ebaluaketa bat egitea.

III- ONDORIOAK

EAEEn adostutako aldaketak ez dira batere esanguratsuak. Bertako presio fiskala Europako batzbestekoa baino baxuagoa da (BPGd-ren 8 puntu) eta EAEko presio fiskala Europar Batasuneko azkenetako da. Presio fiscal baxuena duten herrialdeak dira egoera txarragoan daudenak, langabezi altuarekin eta gastu sozialaren murrizketa larrienekin.

Hiru herrialdeen erreformen arteko aldeak oso txikiak dira, dokumentuaren lehenengo atalean adierazi den bezala. Guztiek egungo presio fiskala mantentzea dakarte.

Eusko Jaurlaritzaren esanetan Raxoik onartutako zerga erreformaren ezartzeak EAEn 580 milioi euro gehituko luke dirubilketa (EAEko erreformek ekarriko luketenaren hirukoitza). PFEZean Raxoik egindako aldaketek, eskala guztiko tipo marjinalak handituz eta dirubilketa ahalmen handiagoaz, EAEko Batzar Nagusietan onartutako zerga aldaketak agerian uzten ditu. Egia da Raxoik PFEZ progresiboago bat onartu duela baina ez du Sozietateen gaineko Zerga gehitu nahi izan, ezta iruzurraren kontrako borroka areagotu.

Kapitalaren errenten eta errenta altuen gain Raxoik onartu dituen zerga gehitzeak, hemen onartutakoak baino nabarmen altuagoak, EAEn hainbat helbideratze fiskal bultzatu beharko luke, gailendu den diskurtso ekonomiko eta politikoaren arabera. Zergak igoz gero, zergadun ahaldunenek EAEtik alde egingo zutelaren arazoibidea egainu handi bat dela nabarmentzen du.

Neurri hauek ez dute krisialditik ateratzea ahalbideratzen. Krisialdia Europar Batasunean kokatu da eta murrizketek areagotu egiten dute. Beraz ez da egia krisialditik ateratzeko neurri mingarriak hartzea beharrezkoa dela.

2011ko Aurrekontuen proiektuen arabera itundutako zergen bitartez 12.500 milioi euro bilduko zirela batzen zen. Errealitatea aldiz erabat desberdina da, datuen arabera 11.480 milioi euro bildu dira, hots, Foru Ogasunek 1.000 milioi euro gutxiago bildu dituzte. Joan den urteko urriko itxiera aurreikuspenen arabera, 209 milioi euro gutxiago izan zen.

Politika hauek hondamendia dakarte, gizartean ondorio latzak eraginez. Langabezia EAEn %14koa da, Europar Batasuneko batzbestekotik urruti (%9,7). Azkeneko datuen arabera gainera, langabetu kopuruak gora egiten jarraitzen du. Aurrekontuen murrizketek osasunaren, hezkuntzaren, gizarte zerbitzuen, etab. eskatea dakarte. Eta gainera, lan eta gizarte eskubideen murrizketak bata bestearen ondoren ari dira onartzen (pentsioak, gizarte prestazioak, sektore publikoko soldadak, etab.).

Hots, politika neoliberalen porrota gero eta nabarmenagoa da, langabezia, prekaritatea, pobrezia, gizartearekiko babes eza eta desberdintasunak areagotzen ari baitira.